



ADENOSINA-TESTARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Elektrokardiogramaren emaitzak (EKG) zalantzak sortzen dizkio mediku-taldeari. Adenosina-testaren bidez, "kitzikapen aurreko patroia elektrokardiografikoa (bide osagarriaren presentzia)" izeneko alterazio zehatz bat baieztatu nahi da.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Nora joan behar dut proba egunean?

5. solairura, AUO-Txagorritxuko D eremura.

Nola egingo didate proba?

- Ohatilan etzango zaituzte eta gorputza gerritik gora agerian izango duzu.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu, ahal dela, eskuineko besoan, adenosina emateko. Baliteke bigarren aldiz eman behar izatea, dosi handiagoa izango duena.

Prozedurak 10-15 minutu irauten du, gutxi gorabehera.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Proba egin eta berehala alta emango dizute.